

Sagardo tour, sagardogileen udarako proiektua

GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEAK PASA DEN ABENDUAN AURKEZTU ZUEN SAGARDOA ROUTE proiektua, sagardogileen oraina eta etorkizuna lantzen dituen. Helburua sektorearen etengabeko biziberritzea izan da, gaur egungo mundura egokitu eta aukerak landu ahal izateko.

Honen baitan, proposamen berri batekin datoz orain sagardogileak: Sagardo Tour proiektua, Donostiara bisitan datozen guztiei gure jatorria eta historia ezagutaraztea xede duena.

Sagardo Tour-en helburuak

- Sagardogintzaren balioa eta lurraldearekiko duen lotura azaltzea. Horretarako sagardotegian bisita eta etxeko produktuen dastatzea botilan zein txotxetik egingo dira.

- Turismo jasangarria helaraztea, hau da, barrualdea indartu eta gutxi ezagutzen diren zonaldeak ezagutaraztea, ikuspuntu berriak eskaintzearekin batera.

- Natura eta jatorriari dagokion turismoa lantzea.

- Gastronomia kulturala egokitzea.

- Lankidetzaren sustatu tokian tokiko eragileekin.

Sagardotegiak, baliabideak, herriak eta eskualdeak: uztartze ezin hobea

Sagardo Tour-ek 11 sagardotegi, 13 herri eta 6 eskualdeekin lotuko ditu Donostiako hiria, ekainetik irailera, larunbatero:



LAU IBILBIDE

GAUZATUKO DIRA:

Guztira, lau ibilbide proposatzen dira, lau baliabide ezagutzeko aukera emango dutenak:

- **Bertako Produktuen Azoka (Tolosa):** baserritarrak eza gutu eta Euskal Sagardoa botilan dastatzeko aukera, Lurlan produktuekin egindako pintxoez lagunduta.

- **Idiazabal JDB Gaztandegia (Zerain):** Artzainak berak gidatuta, Basazabal gaztandegira bisita. Bertan Idiazabal gazta eta Euskal Sagardoa botilan dastatuko dira.

- **Albaola Itsas Kultur Faktoria (Pasaia):** Sagardogintza

eta euskal ontzigintzaren inguruko bisita. Geldialdia egingo da Muguruzan, gilda ezaguna dastatu eta Euskal Sagardoa botilan edateko asmoz.

- **Flyscharen Ibilbidea (Zumaia):** Euskal kostaldea eta Geoparkearen inguruko esperientzia Santa Klara landetxean, Getariko Maisor antxoia eta Euskal Sagardoa botilan dastatuz.

Ibilbide guztietan zehar, gidak azalduko ditu: gure lurraldearen ezaugarriak, historia, kultura eta hizkuntza; herri, hiriburu eta eskualdeak; giza baliabideak, izaera eta bizimodua; orografia menditsu eta berdearen esanahi eta jatorriak.

EGUTEGIA, ORDUTEGIA, GELTOKIAK ETA SALMENTA

- Lau hizkuntzatan eskainiko da esperientzia: euskaraz, gaztelaraz, frantsesez eta ingelesez.

- Ekainaren 23tik irailaren 8ra larunbatero izango da.

- Bost orduko ibilbidea izango da, 11:15etik-16:15etara.

- Donostian izango da geltoki nagusia, Republica Argentina 2 kalean. Hala ere, Baionan, Biarritzen, Donibane Lohizunen eta Hendaiaren ere geltokiak egongo dira.

Lau hilabetez ibiliko da gure errepideetan SAGARDO TOUR autobusa.

Salmenta eta erreserbak: www.sagardoa.eus

info@sagardoa.eus

Tel. 622 618 476

Turismo bulegoetan eta zenbait bidaia agentzietan ere.